

R. 93058

R05/4/10 (13)



JAUN-ARTZEKO OTOITZ LABURRAK

APEZPIKU JAUNAREN BAIMENA DU

IRUNEN

VALVERDE'REN MOLDIZTEGUIAN

1925





Otoitz Bearrenak

AITORTZEKO EGIN-BERRAK

Ene Jesus maitea. Ara emen zure ume pekatari gaxo bat: •ekatzu zure bedenkazioa•

Espiritu Santua, atoz: argi eginda lagundu zadazu nere pekatu guziak ondo eza gutzen, biotz-damua ta ontzeko asmo sendoa artzen eta pekatuak diran bezela aitortzen. Bigundu zazu nere biotza.

Ene Ama maite Maria: bedeinkatu nazazu aitortza on bat egin dezadan.

Zorioneko Jose Santua, nere aingeru zaitzallea, atozte neri laguntzera. Aita gurea, Agur Maria ta Gloria bat.

(Orain gogoan artu zure pekatuak. Ortarako gogora ekarri Jaungoikoaren ta Elizaren aginduak, ibilli zeran tokiak eta izan dituzun eginkizunak).

JAUNGOIKOAREN AGINDUAK

Lenengoa, Jaungoikoa maiteen izatea.

Bigarrena, Jaungoikoaren izenik alperrik ez aotan artzea.

Irugarrena, jai-egunak jai-egitea.

Laugarrena, gurasoak aintzat eukitzea.

Bostgarrena, iñor ez iltzea.

Seigarrena, aragikeririk ez egitea.

Zazpigarrena, ez ostutzea.

Zortzigarrena, gezurrezko testigutzarik ez egin eta gezurrik ez esatea.

Bederatzigarrena, beste senar edo emazterik ez nai izatea.

(Bakoitzean begiratu zertan utsegin dezun gogoz, itzez, egitez, ta ez egitez).

BIOTZ-DAMUA

Jauua, ainbeste pekatuaz zikindua ikusirik nere anima, dana lotsatua nago zure aurrean, bataioan eman nizun itza gorde ez dizudalako

Jauna, bataioko jantzi txuri eder ura zikindu det, urratu det; nizaz errukitu.

Pekatu oiekin Purgatorioko sua irabazi det; nizaz errukitu.

Inpernuko suan betiko erretzen egotea besterik ez det irabazi: nizaz errukitu.

Betiko zerua galdu det; nizaz errukitu.

Ene Jesus: Gurutzean josi zaitut; nizaz errukitu.

Ene Jaungoikoa: nere Aitarik onen ori,
nere ongillerik aundien ori, atsekabetu zaí-
tut: nízaz errukitu,

Ene Jaungoikoa: damu det Zu on uts-uts
ori naigabetua: nízaz errukitu.

JESUKRISTO NERE JAUNA

Jesukristo nere Jaun, Jaungoiko ta gizon
egiazkoa, nere Egille ta Salbatzalle ori, zera-
na zeralako ta gauza guztiak baño maiteago
zaitudalako, damu det biotz-biotzez, damu det
Zu naigabetua; asmo sendoa artzen det peka-
turik geiago ez egiteko, pekaturako bide
guziak utzi, aitortu ta oben-nekea betetzeko.
Amen.

Apaiaren aurrean belauniko esazu:
«Ni pekataria».

Nik pekatari onek, Aitortzen diot alguz-
tidun Jangoikoari, Andre Maria beti Birjiñari,
zoriondun Miguel Goiangeruari, zoriondun
Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Do-
neai, beste Done guztiai eta zuri, ene Aita,
pekaturik asko egin dedala gogapen, itz eta
egiteetan, nere erruz, nere erruz, nere erru
aundiz. Orregatik eskatzen diot Andre Maria
beti Birjiñari, Zoriondun Miguel Goiainge-
ruari, Zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta
Paulo Apostolu Doneai, Beste Done guztiai
ta zuri, ene Aita, otoitz egiozutela nere alde
Jaungoiko gure Jaunari.

Oraín, Aitaren eginda, asi orrela zure pekatuak aitortzen: Agur Maria garbigarbia. Aita, aínbeste egun dira azkeneko konfesioa egin nuala. Ustez ondo egin nuan; (kezkarik baldin badezu ori esan aurrena); penitentzia bete nuan.

Lenengo aginduan... au ta ori det... (Agindu bakoitzean esan esamiñean gogoratu zaizkizun pekatu guztiak; baita ere zenbat aldiz utsegin dezun, ziur baldin bazaude, bestela gutxi gora-bera egunean, astean, illean zenbatetan erori zeran. Ez gero utzi ezertxo ere aitortu gabe: gañera lotsaz edo bildurrez ez gutxitu edo edertu ezer; danak diran bezela ta zure kontzientzian dauden bezela esan.)

Oraingo konfesioan pekatu larririk ezpadezu, zure utsegin ariñak aitortu ondorean esan: Aita, Sakramentu oní barkagai egokiagoa emateko, len barkatutako pekatu guztiak berriz aitortzen ditut, batez ere..... (orain esan damurik aundiena ematen dizun eta zuk bein ere ez egiña izatea naiago zeuduken pekatu bat, lenengo aginduan, bigarreanean, seigarreanean edo besteen batean noiz-bait egin dezuna. Len ondo aitortu bazendun ezta

orain bearrezkoa pekatu orren izena esatea. Ala ere batzuk biotz-damua obetogo adierazteko, orrela esaten dute: «Batez ere nere bizitzan lotsaz egindako konfesio txarrak edo komunio txarrak edo beste zerbait bakoitzak duen bezela.»

Azkenean esan: Jaungoiko gure Jau-naren aurrean damu naiz nere bizitzako pekatu guztiaz, Berari eskatzen diot guztien barkazioa, baita zuri ere, nere Aita, egin bear dedan ordaña ta guztien absolutzioa.

Orain gogoan artu aitortxalleak esaten dizuna, Berak absolutzioa ematen dizun bitartean esan belauniko: «Jesu-cristo nere Jauna.»

AITORTU ONDOREAN

Aurrena apaizak emandako penitentzia bete ta gero esan:

Nere Jesus ona: berriz barkatu dizkidazu nere pekatu guztiak; garbitu dezu nere anima, inpernuko ateak itxi, ta zerukoak iriki dizkidazu, zerurako ezkubiaea eman didazu, zure besoetan Aitarik maitagarrien orrek, nere gaiztakeriak aztu-ta, artu nauzu; lengo larri ta kezkek kendu ta ekarri didazu berriz nere biotzera pake ta atsegin oso osoa. Jesus,

biotz biguñia, esker milla alako mesede aundi onengatik. Zenbat maite nauzun. Zure begiak nigandik aldendu eziñik zaude. Ementxe sartu zera zure graziarekin batean nere biotzean. Etzaitut berriz botako emendik, etzaitut berriz saminduko. Ekatzu ortarako zure indarra, nere asmo sendoak bear bezela betetzeko ta pekatu ta pekatu-bideetatik alde egiñik, beti zure ume leiala izateko. Beti atsegin eman nai dizut; beti zurea izan nai det. Ene Ama maite Maria, artu nazazu zure biotzean; bedeinka itzazu nere asmoak; ez utzi bein ere berriz Jaungoikoaren grazia galtzen.

GOIZEKO ESKEINTZA

Nere Jaungoiko maitea: goiz goizetik naizen guzti-guztia zure eskuetan jartzen natzaizu. Mariaren Biotz garbiaren bitartez eskeintzen dizkitzuk nere gaurko gogapen, begiraldi, itz, egite, neke ta lan guztiak. Izan bitez nere gaurko gauza guztiak zure izenaren gorapenik aundienerako, nere onerako, neri oraindano egin dizkidazun on eta mesedeagatik eskerrak emateko, nere ta mundu guziko pekatuen

barkazioa irixteko; miñez, atsekabeetan edo eriotzako orduan daudenai eta purgatorioko animai languntzeko.

Jauna, zerana zeralako ta ainbeste maite nauzulako, egun guztian bide zuzenetik ibilli nai det, baita aldegin ere. pekaturako bideetatik, zure Biotzari atsegin emateko. Nere gaurko arnas bakoitzean esan nai dizut «maite zaitut, Jauna, maite zaitut biotz biotzetik.»

AMA BIRJIÑARI

Nere Ama ta nere jabea, ni osoro eskeitzen natzaizu, ta nere ongina ta nere maitasunaren ezagungarritzat ematen dizkizut nere begiak, nere entzukiak, nere mingaña, nere biotza; itz batean, ni naizen guztia. Zurea naizen ezkerro, o Ama guziz ona: zure gauza bezela gorde, zeindu ta zuzendu nazazu.

BIOTZ-OTOITZA

Zure Sortze errugabe ta santuagatik nere gorputza garbitu ta anima

gorde zaidazu, Ama María. Agur María... *Esan beste bi aldiz, «Zure Sortze errugabe.... ta bakoltzean beste Agur Mari bat.*

AINGUERU ZAITZALLEARI

Sortu nintzanetik Jaungoikoak laguntzat emandako Aingeru santua, argitu, zaitu ta lagundu zaidazu gaur ta nere bizitzako egun guztietan.

SANTUEI

Nere izeneko Santu ori ta beste zerutar guztiak, lagundu zaidazute Jaungoikoaren aurrean. *Aita Gurea, Agur Maria ta Gloria.*

MEZAREN ESKEINTZA

Nere Jaungoiko guziz maitagarria; orain entzutera natorren meza santua ta onekin batean gaur mundu guztian emango diran beste guztiak eskeintzen dizkizut zure jabetasun neurrigabekoa aitortzeko, zure izena goratzeko, egin dizkiguzun one ta mesede ain ugariaga-

tik eskerrak emateko, gure gaiztakeri ikaragarri ta ezin esan alakoak ordaintzeko; neretzat ta kristau guzientzat, batez ere nere guraso, senide, ongille, ezagun eta adixkideentzat pekatu bideetatik alde egiteko ta beti zure maitasunean irauteko bear ditugun graziakirixteko; baita ere sinismenaren argirik gabe, edo pekatuan edo pekaturako arriskuan edo iltzeko ordu larrian daudenentzat zure laguntza osoa eskatzeko eta azkenez Purgatorioko animagaxo aiei zeruko ateak irikitzeko. Jauna, ez begiratu gure gaiztakeriai baizikan zure Semeak meza oietanbegien aurrean jartzen dizun bere Gorputz eta Odolaren eskeintza garbi eta errugabe orri.

Ene Ama maitea, zure esku garbi oietan gaurko meza guztiak artuta zoaz zeruko Aitarengana ta bakoitzean eskatu zaiozu gutxienez pekatari bat bide zuzenera ekartzeko, iltzeko zorrian dagoan bati gutxienez eriotz ona

emateko eta purgatorioko anima bat betiko zori onera eramateko. Orixe gutxienez meza bakoitzean iritxi nai nuke.

JAUNA ARTZEKO EGIN-BERRAK

Sinismenazko eginkizuna. Jesukristo nere Jauna, sinisten det or zaudela egiaz Aldareko Sakramentu Santuan, eta Zu Zerori artzera nijoala orain.

Jauna agurtzeko eginkizuna. Ene Jesus, agur egiten dizut emen ogiaren itxuraz gorderik zauden orri. Ezagutzen det nere Egillea ta nere Jaungoikoa zerala.

Umiltasunezko ta on-damuzko eginkizuna Jauna, ez naiz gauza nere baitan zu sartzeko ainbeste naigabetu zaitudan ondoren, baño esazu itz bat badaere ta nere anima sendatua izango da. Esazu errukitasunezko itz bat ta barka zaizkidazu nere pekatuak; biotz-biotzetik eskatzen dizut.

Itxaropenazko eginkizuna. Nere Zeruratzalle maitea, uste det nere ba-

rrura egotea etorririk, nere amima garbituko dezula eta beteko dezula zure graziaz ta maitetasunaz.

Maitetasunezko eginkizuna. Jesus, nere Ontasun bakarra! Mañtatu nauzu zure aragiaz azi nai izateraño; maite zaitut nere biotz guziaz, nere anima guziaz, nere indar guziekin. Nai det bizi eta ill zure maitetasun santuan.

Gogozko eginkizuna. Atoz, Jesus, atoz nere biotzera, atera zazu bere gaitz guzietatik, bete zazu zure graziaz, biotz-biotzez nai zaitut artu lenbaño-len. Jesus maitagarria; nik artu nai zaitut Ama Birjiñak eta zeruko Santuak artzen zinduten garbitasun eta maitetasunarekin.

(Ni pekataria).

Jauna, ez naiz gauza zu nere biotzean sartzeko, baño esazu itz bat bada ere ta nere anima sendatua izango da.

(Au iru aldiz esan)

JAUNA ARTU ONDORERAKO

Agur egiteko. Nere Jaungoiko ta nere Zeruratzallea, agur egiten dizut

nere biotzean zauden orri, aingeruak eta santuak Zu goratzeko egiten dizkizuten agurraldietarabatutzen naiz gogo guziaz.

Esker onezkoa. Eskerrak ematen dizkizut, nere Zeruratzalle maitea, neregana etorri nai izan dezulako gaurko goizean. Zer itzulko dizut nik zure ongi-egin guzien ordañez?

Eskeintza. Jesus Jauna, ematen natzaizu naizen guzia osoro, Zuk orain dezun guztia eman didazun bezelaxe. Eman zaidazu indarra zuretzat besterik ez bizitzeko.

Maitetasun erakutsia Ene Jesus ona, maite zaitut alik geiena, zure maitetasunaren suak berotu, erre, kiskali dezala beti nere biotza.

Asmo egiazko ta eskaera Nere Jaungoikoa, artzen det asmo egiazko bat Zut gorrotatzen dituzun gauza guzietatik iges egiteko, ta neri eskatzen dizkidazun guziak egiteko. Egizu zure laguntzaz, maite zaitzadan eta goratu

emen bizi naizen bitartean eta gero betikotasun guzian. Amen.

Jauna, ori bera eskatzen dizut mundu guziko zure seme-alaba guzientzat, Erromako Aita Santuarentzat, eta beste eliz-gizon guztientzat; iñozentzia oraindik galdu ez duten umeentzat, batez ere nere guraso, senide, ongille, ezagun ta lagun guztientzat, itz batean, bizi ta ill guzientzat, batez ere nik geiena zor dietenentzat.

Ene Jesus maitea! nik eskeintzen dizut gaurko komunio au zure Biotz ain samindu ta naigabetu ori pekatarien orde z poztutzeko, alaitzeko, gozatzeko; zure betiko Aitaren pekatarien kontrako asarre-miña leundu ta kentzeko; zure Biotza pekatarien alde xamurtu ta biguntzeko; zuri komunio onekin esateko: «maite zaitut, Jauna, maite zaitut pekatarien orde».

Barkatu munduok pekatari guziai, batez ere erri ontakoai. Len baño len zureganatu guztiak.

ARRATSALDEKO IKUSTALDIA

Jesus maite-maitea, Aldareko Sakramentu santu ontan gau ta egun gureganako maitasunean su ta gar dago zure Biotza. Gizonak berriz ez dute ezagutu nai zure neurrigabeko maitasun ori: aztu egiten zaituzte, bakarrik uzten zaituzte. Zenbat zitalkeri, zenbat gaiztakeri egiten dizkizuten egunero maitasunezko Sakramentu onetan! Zenbat naigabe ematen dizkizuten alderdi guzietan! Zenbatek pekatu larrian artzen zaituzten! Ai! nola Biotz maitagarri ori zauritzen dizuten! Kupitzen zaitut, Jauna; emen egiten zaizkizun eskergabekeriak ordaintzera natorkizu; oien orde z eskeintzen dizkizut zerutar guzien gorapenak; emen artzen dituzun naigabeen orde z nik eskeintzen dizut zerutar guzien maitasuna.

Gora Jesus maitea.

Gure Jaun ta Erregea!

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Gora Jesus maitea.

Gure Jaun ta Erregea! Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Orrela jarraitu sei Aita gure, Agur Maria ta Gloria esan arte, bakoitzaren tartean esanaz «Gora Jesus maitea, gure Jaun ta Erregea».

Jesusen Biotz zauritua! gizon guzien biotzak nereak balira, pozik eskeñiko nizkizuke guziak, bakoitzarekin maite nai zinduket zeruko santu ta aingeruak maite zaituzten bezela, Ama Birjiñak bezela, geiago oraindik Zuk zerorrek zere burua maite dezun bezela. Ori al ezpazait ere, nere biotz txiki au ez dizut bein ere ukatu nai. Tori, ar zazu oso-osea. Maite zaitut munduko pekatarien orde, erri ontako pekatarien orde. Barkatu Jauna, barkatu guziaz. Bigundu itzatzu biotz gogor guziak. Zureganatu guziak, zure aldareko Sakramentu ontako maitasunari bear bezela erantzun dizaiogun.

Ondarrabiko Aita Kaputxinoak

1925

Nihil Obstat
Fr. Gabriel a San Sebastián
Censor Ordinis

Imprimatur
Fr. Joaquín M.^a a Beriaín
Min. Prov.
Pampilonae, 25 Aprilis 1925

Nihil Obstat
El Censor
L.^{do} José Miguel de Barandiarán

Imprimatur
Victoriae 7 aprilis 1925
Episcopus Victoriensis



